DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. SOZIETATEAK ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEAK ANTOLATZEN DITUZTEN JARDUERETARAKO ESZENATOKIAK, HESIAK, HARMAILAK ETA ASKOTARIKO MATERIALA ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO, IPINTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZEIN LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUEN LOTE BIDEZKO KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEBEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKOA, ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN OBJEKTUA**
2. **HORNITUKO DIREN MATERIALAK**
3. **LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUAK**
4. **FUNTZIONAMENDUA ETA ESKAERA SISTEMA**
5. **DATAK, ORDUTEGIAK ETA MUNTAKETA TOKIAK**
6. **LANEKO BABESA ETA UNIFORMEAK**
7. **MANTENTZE ZERBITZUA**
8. **GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

I. ERANSKINA. MATERIALEN EZAUGARRIAK

II. ERANSKINA. 2025 URTEKO JAIETAKO JARDUEREN EGUTEGI ORIENTAGARRIA

III. KONTSUMOEN ZENBATESPENA

IFK-CIF Q2000541I

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. SOZIETATEAK ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEAK ANTOLATZEN DITUZTEN JARDUERETARAKO ESZENATOKIAK, HESIAK, HARMAILAK ETA ASKOTARIKO MATERIALA ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO, IPINTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZEIN LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUEN LOTE BIDEZKO KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEBEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKOA, ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA[1]

Lizitazio honen objektu barruan daude DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK eta VICTORIA EUGENIA, S.A. eta SAN TELMO MUSEOA, S.A. sozietateek beren kabuz edo lankidetzan antolatutako jardueretan erabiliko diren eszenatoki, hesi, harmaila eta askotariko materialak alokairu bidez hornitu, ipini, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzuak zein laguntza logistikoko zerbitzuak, loteka banatuak. Jarduera horiek aire zabalean, lokaletan edo bestelako espazio publiko zein pribatuetan antolatu ahalko dira, Preskripzio Teknikoen Agiri honetan eta Administrazio Klausula Partikularren Agirian aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu mistoa da, hornidura kontratu baten eta zerbitzu kontratu baten prestazioak uztartzen baititu, eta dagokion araubide juridikoa Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 37. klausulan zehaztu da.

Zehazki, lizitazio honen objektuak barne ditu, alde batetik, agiri honen bigarren klausulan aipatzen diren materialen alokairu bidezko hornidura, ipintzea, muntaketa eta desmuntaketa, eta, bestetik, hirugarren klausulan azaltzen diren laguntza logistikoko zerbitzuak.

Kontratuaren objektua hiru lotetan banatu da, agiri honen bigarren klausulan azaldutako moduan.

Kontratuaren objektua osatzen duten prestazioak erakunde kontratatzaileek aurretiaz eskatuta egikarituk dira, Preskripzio Teknikoen Agiri honetako 4. klausulan aurreikusitako moduan.

Lizitazio honetatik kanpo geratuko dira eta, ondorioz, adjudikazioduna ez diren hirugarren enpresekin kontratatu ahalko dira (lizitazio independente bidez) Aste Nagusiko kontzertuetarako eszenatoki nagusia (gaur egun, Sagueseko eszenatokia) eta Donostiako Jazzaldiko hondartzako eszenatokia.

Hauek dira lote bakoitzaren kontratuaren CPV kodeak:

1. LOTEA:

- 39150000-8- Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia).
- 79952000-2 - Ekitaldi zerbitzuak.
- 45223800-4 - Egitura prefabrikatuen muntaketa eta instalazioa.
- 45223100-7 Egitura metalikoen muntaketa.

2. LOTEA:

- 39150000-8- Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia).
- 79952000-2 - Ekitaldi zerbitzuak.
- 34928200-0- Hesiak.

[1] *Agiri honetan agertzen diren "kontratu", "adjudikaziodun" eta "kontratista" terminoen aipamenak eta horiei lotutako alderdi guztiak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.-rekin eta SAN TELMO MUSEOA, S.A.-rekin izenpetuko den lote bakoitzari dagokion kontratuari egindako aipamen moduan ulertuko dira.*

IFK-CIF Q2000541I

3. LOTEA:

- 39150000-8- Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia).
- 79952000-2 - Ekitaldi zerbitzuak.
- 45223800-4 - Egitura prefabrikatuen muntaketa eta instalazioa.

2. HORNITUKO DIREN MATERIALAK

a. *Elementuen zerrenda*

Zehazki, lizitazio honen objektuaren barne egongo dira elementu hauek:

1. LOTEA:

Erreferentzia zenbakia:

1. Eszenatoki eta eszenatoki osagarrietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin, m^2-tan.
2. Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x1 m-koak, unitatetan.
3. Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x0,50 m-koak, unitatetan.
4. Eszenatokietarako estaldurak, m^2-tan.
5. Harmailak, eserlekutan.
6. Harmaila goratuak, eserlekutan.
7. Eszenatokien atzealdeko eta aldamenetako itxiturak, unitatetan.
8. Eszenatoki eta tarimetarako zango babesak, ml-tan.
9. Babes barandak (babes listoiak), ml-tan.
10. Ibilgarri estaliak, 2x2 m tamainakoak, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
11. Ibilgarri estaliak, 4x2 m tamainakoak eta 4,5 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
12. Ibilgarri estaliak, 2x1,33 m tamainakoak gutxi gorabehera eta 2,35 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
13. Eszenatokirako eskailerak (3.etik aurrera), unitatetan.
14. Eszenatokira iristeko arrapala, ml-tan.
15. Moketa babes plastikoarekin, m^2-tan.
16. Moketa babes plastikorik gabe, m^2-tan.
17. Linoleoa, eszenatokiko plataforma eta beste batzuk estaltzeko, m^2-tan.
18. Zutoinetarako kontrapisuak, 100 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
19. Zutoinetarako kontrapisuak, 350 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
20. Zutoinetarako kontrapisuak, 600 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
21. Zutoinetarako kontrapisuak, 900 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.

IFK-CIF Q2000541I

2. LOTEA:

Erreferentzia zenbakia:

1. Metalezko hesiak, 1 m-ko altuera eta 2,20 m-ko luzerarekin, unitatetan.
2. Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokalorik gabe, ml-tan.
3. Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin, ml-tan.
4. Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokalorik gabe, ml-tan.
5. Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin, ml-tan.
6. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. Luzearen arabera, 75 m-ra arte.
7. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. Luzearen arabera, 150 m-ra arte.
8. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. Luzearen arabera, 300 m-ra arte.
9. PVC hesiak, 1,05 m-ko altuera eta 1 m-ko luzerarekin, unitatetan.
10. Jende oldeen aurkako hesia, atedun moduluekin eta kableak igarotzeko moduluekin.
11. Banderatxoak ipintzeko euskarriak, unitatetan.
12. 5, 2,5, 2 eta 1 m-ko altuerako mastak, dagokien euskarri edo oinekin eta banderak ipintzeko zirgiloekin (beharrezkoa balitz), unitatetan.
13. Kableak estaltzekoa, unitatetan.
14. Balizatzeko zinta(250 m-ko luzera), bilkaritan.
15. Errafia beltza hesiak estaltzeko, ml-tan.

3. LOTEA:

Erreferentzia zenbakia:

1. 10, 15 eta 20 m-ko portikoak dituzten karpa modularrak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, m^2-tan.
2. 5x5 m-ko karpak, jaima motakoak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
3. 5x4 m-ko bi isuriko karpak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira,

IFK-CIF Q2000541I

dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.

4. 3x3 m-ko karpak, jaima motakoak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
5. 3x3 m-ko karpa tolesgarriak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
6. 3x4,5 m-ko karpa tolesgarriak.
7. 3x6 m-ko karpa tolesgarriak mastertent motakoak.
8. Karpetarako zorua, m^2-tan.
9. Karpetarako moketa babes plastikoarekin, m^2-tan.
10. Karpetarako moketa babes plastikorik gabe, m^2-tan.
11. Karpetarako kontrapisuak, 100 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
12. Karpetarako kontrapisuak, 350 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
13. Karpetarako kontrapisuak, 600 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
14. Karpetarako kontrapisuak, 900 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
15. Barrualdean banaketak sortzeko manparak, 120x200 eta 200x200 cm inguruko tamainarekin, unitatetan.
16. Gurpildun esekilekuak eta dagozkien pertxak (25 esekileku bakoitzeko), unitatetan.
17. Ispiludun altzariak, unitatetan.
18. Mostradoreak, 100x50x100 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin, unitatetan.
19. Barra mostradoreak, 190x45x110 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin, unitatetan.
20. Egur zuriz egindako txarteldegi eramangarria, 1 m x 1,20 m inguruko neurri eta 2,10 m inguruko altuerarekin, atzealdeko atearekin.
21. Atedun armairuak, 100x45 cm inguruko neurri eta 158 cm inguruko altuerarekin, apalekin eta giltzaz ixtekoak.
22. Zuzentze zutoinak zinta barneragarriarekin, unitatetan.
23. 100 litroko kubo beltzak, heldulekuekin eta hondakinak biltzeko dagokien poltsarekin, unitatetan.

Materialen **gutxieneko ezaugarriak** agiri honen I. eranskinean adierazitakoak izango dira.

Aipatu I. eranskinean adierazten diren gutxieneko ezaugarriei dagokienez, aipatu behar da, zenbait ezaugarriren kasuan, "gutxi gorabeherako" edo antzeko terminoak erabiltzen direla neurriak, pisuak eta abar aipatzean. Kasu horietan, lizitatzaileak ulertu behar du aipatu balioekiko aldea % 10ekoa izan ahalko dela gehienez.

b. Materialaren baldintzak

Hornituko diren elementuak behar bezala berrikusita eta erabiltzeko egoera perfektuan entregatuko dira. Era berean, aplikagarria den araudiak eskatzen dituen segurtasun neurriak errespetatu beharko dituzte.

Elementuek uniformetasun estetikoa mantenduko dute, eta kokatuko diren espazioen beharretara egokituko dira. Ezingo dute publizitate logotiporik agerian izan, jabearen identifikaziorako direnak salbu.

IFK-CIF Q2000541I

Muntaketa bakoitzean, baldintza estetiko eta garbiketa baldintza zuzenetan egongo dira elementu guztiak.

Erakunde kontratatzaileek kontratuari atxikitako materiala ordezkatzea eskatzeko eskubidea izango dute, prestazioak egikaritzeko desegokia edo ez oso egokia bada.

Enpresa kontratistak, muntaketa amaitu ondoren eta betiere jarduerei ekin aurretik, instalazioen segurtasun eta muntaketa ziurtagiria aurkeztuko du.

c. *Hornidurak barne dituen kontzeptuak*

Administrazio Klausula Partikularren 7.2 klausulan adierazitako kontzeptuez gain, honako hauek kontratuaren prezioaren barne egongo dira ere:

- Garraioa, elementuak biltegiratuta dauden tokitik muntaketa tokira, eta berriz ere adjudikaziodunak erabakitzen duen tokira.
- Hornituko den materialaren zamalanak.
- Materialen muntaketa eta desmuntaketa.
- Mantentze zerbitzua.
- Kontratistak kontratua egikaritzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak (erremintak, ibilgailuak, ekipamenduak, tresnak, ekipamendu informatikoak, transpalet mekaniko eta eskuzkoak, eskorga mekaniko eta eskuzkoak eta aparatuak).
- Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak, hala nola lan bileretan zein informazio bileretan parte hartzea, instalazioak kokatuko diren tokietara bisitak egitea…

Nolanahi ere, gorago aipatu diren kontzeptu guztiek adierazpen izaera ez mugatzailea dute; izan ere, prezioak barne ditu kontratuaren objektuko hornidura egiteko kostu guztiak.

d. *Materialaren erabilgarritasuna*

Kontuan hartuta kontratu honen objektu barruko materialaren zati bat zenbait jarduera kulturaletarako aldi berean hornitu behar izatea gerta daitekeela, kontratuaren adjudikaziodunak, kontratua egikaritu bitartean, jarraian adierazitako elementuak izan beharko ditu etengabe biltegian, gutxienez, eta Agiri honen **I. eranskinean** adierazitako ezaugarriekin:

1. LOTEA:

- Eszenatokietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin: 800 m^2.
- Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x1 m-koak: 200 m^2.
- Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x0,50 m-koak: 100 m^2.
- Eszenatokietarako estaldurak: Agiri honen I. eranskinean adierazitakoak.
- Harmailak: 1000 lagunentzako eserlekuak.
- Harmaila goratuak: 300 lagunentzako eserlekuak.

IFK-CIF Q2000541I

- Eszenatokiko aldamenetako eta atzealdeko itxiturak: Agiri honen I. eranskinean gutxieneko izakin moduan ezarritako estaldura guztietarako beharrezkoak direnak.
- Eszenatokiko zango babesak: 250 m.l.
- Babes barandak (babes listoiak): 200 m.l.
- Eszenatokirako eskailerak (3.etik aurrera): 20 u.
- Eszenatokirako arrapalak: Agiri honen I. eranskinean gutxieneko izakin moduan ezarritako estalduradun eszenatokietarako beharrezkoak direnak.
- Moketa, babes plastikoarekin edo gabe: 1.250 m^2 (gutxieneko izakinak kolore batean baino gehiagotan izatea aintzat hartuko da).

2. LOTEA:

- Metalezko hesiak, 1 m-ko altuera eta 2,20 m inguruko luzerarekin: 1500 m.l. estaltzeko beharrezkoak.
- Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, dagokien segurtasun zokaloarekin: 1000 m.l. estaltzeko beharrezkoak.
- Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, dagokien segurtasun zokaloarekin: 500 m.l. estaltzeko beharrezkoak.
- PVC hesiak, 1,05 m-ko altuera eta 1 m-ko luzerarekin, aparkatzeko barruti eta esparruetarako: 200 u.
- Banderatxoak ipintzeko euskarriak: 200 u (bikoitzak) / 400 u (banakakoak).
- 5, 2,5 eta 2 m-ko altuerako mastak, dagokien euskarri eta banderak ipintzeko zirgiloekin (beharrezkoa balitz): 20 u. (5 m-ko 10, 2,5 m-ko 5 eta 2 m-ko 5)
- Kableak estaltzekoa: 100 m estaltzeko beharrezkoak direnak.
- Errafia beltza hesiak estaltzeko: 1.000 m.l.

3. LOTEA:

- Karpa modularrak:

  10 ml-ko portikoarekin: 500 m^2.

  15 ml-ko portikoarekin: 900 m^2.

  20 ml-ko portikoarekin: 1.200 m^2.

- 5x5 m-ko jaima karpak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta itxitura gortinak:25 u.
- 5x4 m-ko bi isuriko karpak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak: 25 u.
- 3x3 m-ko jaima motako karpak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak: 25 u.

IFK-CIF Q2000541I

- 3x3 m-ko karpa tolesgarriak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak: 60 u.
- Karpetarako zorua: 1.200 m^2.
- Barrualdean banaketak sortzeko manparak, 200x200 cm ingurukoak: 25 u.
- Barrualdean banaketak sortzeko manparak, 120x200 cm ingurukoak: 50 u.
- Gurpildun esekilekuak: 25 u.
- Pertxak: 625 u.
- Ispiludun altzariak: 10 u.
- Mostradoreak, 100x50x100 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin: 50 u.
- Barra mostradoreak; 190x45x110 cm ingurukoak: 30 u.

Eskatutako materialaren laginak dagokion ikuskaritza teknikoaren eskura jartzeko konpromisoa onartzen du enpresa kontratistak.

3. LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUAK

Erakunde kontratatzaileek laguntza logistikoko zerbitzuak kontratatzea eskatu ahalko dute, besteak beste, honako lan hauek egiteko:

- Erakunde kontratatzaileen jabetzakoak diren eta jai, jarduera kultural eta aisialdiko jarduerekin lotura duten azpiegiturak muntatu, ipini, desmuntatu eta mantentzea.
- Erakunde kontratatzaileen jabetzako materialen mantentze lanak (koipeztatzea, materiala garbitzea, torlojuteria, margolanak…).
- Materialak mugitzea.
- Antolatzaileek eskatzen dituzten antzeko lan lagungarri guztiak.

Laguntza logistikoko zerbitzuak emateko kontratistak enplegatuko dituen giza baliabideak aurkeztutako eskaintzan adierazitako prezioen arabera fakturatuko dira.

Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 7.2 klausulan adierazitako kontzeptuez gain, kontratuaren prezioaren barne egongo dira zerbitzuak egikaritzeko beharrezkoak diren bitarteko material guztiak (tresnak eta ibilgailuak).

4. FUNTZIONAMENDUA ETA ESKAERA SISTEMA

Kontratuaren objektua diren zerbitzuak erakunde kontratatzaileek aurretiaz eskatuta egikarituko dira.

Eskaera hori hurrengo ataletan adierazitako epeetan egingo da, kontratistari zuzendutako posta elektroniko bidez. Hor zehaztu egingo dira hornitu beharreko materiala eta/edo eman beharreko laguntza logistikoko zerbitzuak, jardueren data zehatzak eta prestazioak egikaritzeko toki eta ordu/epeak.

IFK-CIF Q2000541I

Enpresa kontratistak eskaera aztertuko du eta, hurrengo atalean adierazitako epe barruan, eskaria berretsi eta aurrekontu bat bidaliko du, eskatutako elementu edo langile guztiak, unitate kopurua eta horietako bakoitzaren prezioak zehaztuz. Fakturak aurrekontuen xehetasun maila berarekin egingo dira, hau da, hornitutako elementu bakoitza eta elementu bakoitzaren unitate kopurua adierazita, laguntza logistikoko langileen arduraldi orduekin eta horren guztiaren prezioarekin batera.

Eskariak egin ahal izateko, kontratistak helbide elektroniko bat eta telefono mugikor zenbaki bat jakinarazi beharko dizkie erakunde kontratatzaileei. Telefono eta helbide hori kontratuaren egikaritzeari atxikita egongo dira, urteko 365 egunetan, 8:00etatik 22:00etara gutxienez, astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Muntaketa behar duten jarduerak garatu bitartean, eguneko 24 orduetan egongo dira erabilgarri.

Prestazio bakoitzari dagokion lan egitasmoa erakunde kontratatzaileei zehaztuko dute kasu bakoitzerako, kontratuaren arduradunaren edo hark izendatutako langile teknikoen bidez.

a) *Formatu handi[2] eta ertaineko[3] ekitaldiak*

Formatu handi eta ertaineko ekitaldien kasuan, eskaria hilabete bateko aurrerapenarekin egin beharko da gutxienez, jardueraren hasiera datarekiko.

Enpresa kontratistak eskaria aztertuko du eta, 5 egun naturaleko epe barruan, eskaria berretsi eta aurrekontua bidaliko du.

Erakunde kontratatzaileek 10 egun naturaleko aurrerapenarekin itxiko dute lan egitasmoa gutxienez, jardueraren hasiera datarekiko. Hala ere, erakunde kontratatzaileek aldaketak egin edo material zein zerbitzu gehigarriak eskatu ahalko dituzte kontratua egikaritu bitartean.

Muntaketa lanak hasi ondoren premia berriak sortzen badira, enpresa kontratistak ordubete izango du gehienez enkargua egikaritzeko, errekerimendua egiten zaionetik.

Zerbitzuren bat eskatu eta 72 ordutik beherako aurrerapenarekin ezerezten bada, erakunde kontratatzaileak Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 7.2 klausulan ezarritako ehunekoa ordaindu beharko dio kontratistari.

b) *Formatu txikiko[4] ekitaldiak eta material eta/edo zerbitzuen behar puntualak*

---

[2] Ondore hauetarako, formatu handiko ekitaldiak izango dira jarraian adierazitako ezaugarri bat edo gehiago dituen muntaketa behar dutenak:
- Iraupena: 5 egunetik gora.
- Muntaketa eta desmuntaketa: 2 eta 6 egun arteko muntaketa; 3 eta 4 egun arteko desmuntaketa.
- Materiala: 3 eszenatokitik aurrera (eta/edo antzekoak: karpak, hesiak…).
- Muntaketa espazioa: 3 kokalekutik gora.

Adib. Inauteriak, Aste Nagusia, Euskal Jaiak, Estropadak, Santo Tomas, DFeria, Jazzaldia.

[3] Ondore hauetarako, formatu ertaineko ekitaldiak izango dira jarraian adierazitako ezaugarri bat edo gehiago dituen muntaketa behar dutenak:
- Iraupena: 2 eta 4 egun artekoa (biak barne).
- Muntaketa eta desmuntaketa: 1 eta 2 egun artekoa (ekintza bakoitzerako).
- Materiala: 2 eszenatokira arte (edo antzekoak: karpak, hesiak…).
- Muntaketa espazioa: 2 kokalekura arte (edo 2 ibilbide linealera arte).

Adib. auzo gehienetako jaiak, Eskualde Etxeen eguna, Olentzero eta Mari Domingiren eta Erregeen desfileak, Glad is the Day…

[4] Ondore hauetarako, formatu txikiko ekitaldiak izango dira jarraian adierazitako ezaugarri bat edo gehiago dituen muntaketa behar dutenak:
- Iraupena: 1 egun gehienez.
- Muntaketa eta desmuntaketa egun berean.
- Muntaketa espazioa: kokaleku bakarra.

Adib. prentsaurrekoak

IFK-CIF Q2000541I

Formatu txikiko ekitaldien edo material eta/edo zerbitzuen behar puntualen kasuan, eskaria 3 egun naturaleko aurrerapenarekin egin beharko dute gutxienez erakunde kontratatzaileek, jardueraren hasiera datarekiko. Enpresa kontratistak 24 orduren buruan berretsiko du eskaria eta bidaliko du dagokion aurrekontua.

Behar bezala justifikatutako kasuetan, aurreko paragrafoan adierazitakoa baino txikiagoa den aurrerapenarekin eskatu ahalko dute erakunde kontratatzaileek hornidura eta/edo zerbitzua. Premiazko zerbitzu horietan, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 7.2 klausulan adierazitako ehunekoa ordaindu beharko du enpresa kontratatzaileak.

Halaber, egindako enkarguak hiru ordutik beherako iraupena badu, pertsona bakoitzeko 3 orduko gutxieneko zerbitzu moduan zenbatuko da.

Azkenik, eskatutako zerbitzuak 24 ordutik beherako aurrerapenarekin ezerezten badira, erakunde kontratatzaileak Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 7.2 klausulan adierazitako ehunekoa ordaindu beharko dio kontratistari.

5. DATAK, ORDUTEGIAK ETA MUNTAKETA TOKIAK

Lizitazio honen objektua diren prestazioak erakunde kontratatzaileen programazio eta antolaketa beharren arabera egikarituko dira.

Enpresa lizitatzaileei eskaintzak prestatzeko prozesua errazte aldera, Agiri honen II. eranskinean erantsi da urteko egutegiaren aurreikuspena, horren barne direla erakunde kontratatzaileek antolatzen dituzten jarduerak, jaiak, ikuskizunak, kultur ekitaldiak, kirol ekitaldiak eta antzekoak. Aurreikuspen hori orientagarria da; izan ere, baliteke jardueraren bat ez egitea, beste batekin ordezkatzea, hasiera batean aurreikusita ez zeuden beste batzuk gehitzea edo egutegian adierazitako datak aldatzea.

Kontratistak kasu guztietan errespetatu beharko ditu DONOSTIA KULTURAK ezarritako jarduera bakoitzaren muntaketa eta desmuntaketa datak; bestela, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 29. klausulan jasotako zehapenak ezarriko zaizkio.

Ezintasun eta/edo antolaketa beharrengatik bada salbu, lanak lanegunetan gauzatuko dira, instalazioak ahalik eta egun gutxienetan muntatuta mantenduz.

Muntaketa eskatutako ordurako prest egon beharko da, eta desmuntaketa ekitaldia amaitzean egingo da. Ezingo dira eskainitako hornidura eta zerbitzua ez diren kontzeptuak fakturatu, hala nola garraiorako erabiltzen den ibilgailuaren itxaronaldia, eskatutako materiala muntatu/desmuntatu duten langileak, etab.

Bide publikoan egiten diren muntaketa, ipintze eta/edo desmuntaketa guztiak 8:00etatik aurrera hasiko dira eta 22:00ak baino lehen amaituko dira. Horren salbuespenak izango dira inguruetan bizilagunik ez duten kasuak; zaratarik sortzen ez duten muntaketa, ipintze eta/edo desmuntaketak; agintaritza eskudunaren baimen berezirik behar ez dutenak; eta/edo behar bezala baimendutako antolaketa beharren araberakoak.

Materialen muntaketa erakunde kontratatzaileek adierazitako toki zehatzean egingo da. Materialak garraiatzen dituen ibilgailuak ezingo balu zuzenean toki horretaraino iritsi, enpresa kontratistak eskuz eramango ditu materialak, edo kontratua egikaritzeko derrigorrez atxiki beharreko bitartekoen laguntzarekin, erakunde kontratatzaileei kostu gehigarririk kobratu gabe.

Hala ere, muntaketa sarbide zaila duen toki batean egin behar bada[5], Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 7.2 klausulan adierazitako ehunekoa ordainduko da.

[5] Sarbide zaileko tokiak izango dira baldintza hauetako bat gutxienez betetzen dutenak:
1. Transpalet mekaniko edo eskuzko transpaletarekin sartzea ezinezkoa bada, materiala garraiatzen duen kamioi/furgoneta obra tokira iritsi ezin den kasuetan, lurzoruak gehiegizko malda duelako, eskailerarik gabeko sarbiderik ez dagoelako edo adierazitako baliabideekin zeharkatu ezin diren desnibelak daudelako.

IFK-CIF Q2000541I

Adjudikaziodunak libre, zabalik, garbi eta aurkitu zuen baldintza berdinetan utzi beharko du espazioa, erakunde kontratatzaileek aurretiaz eskatu beharrik gabe.

6. LANEKO BABESA ETA UNIFORMEAK

Kontratistaren kontura izango da bere langileen laneko babeserako ekipamendua, eta kontratista arduratuko da ere laneko segurtasunari buruzko araudia aplikagarria betetzeaz (segurtasun oinetakoak, eskularruak, kaskoa, arropa eta legez ezarritako gainerako betekizunak) eta laneko uniformearen garbiketaz.

Era berean, kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeko atxikitako langile guztiei uniformea (ahal bada, galtzak eta poloa) eta norbera babesteko ekipamendua (NBE) EMATEA.

Kontratua egikaritzeko atxikitako langileek gauzatuko duten lanerako egokia den arropa eraman beharko dute. Laneko arropa, segurtasun araudia betetzeko behar dena barne, adjudikaziodunaren kontura izango da. Uniforme edo laneko arropetan ez da erakunde kontratatzaileen inolako logotiporik agertuko; egokia denean, enpresa adjudikaziodunaren marka edo logotipoa eramango dituzte.

7. MANTENTZE ZERBITZUA

a) <u>Mantentze zuzentzailea</u>

Elementuen errentamendu epean zehar, kontratistak bermatu egingo du elementu horiek ez dutela inolako akats materialik edo fabrikazio akatsik.

Horren arabera, kontratistak bere kontura egin beharko ditu hornitu diren elementuen edozein arazo posible zuzentzeko eta/edo lizitazioko Agiriak eta/edo kontratua ez betetzea zuzentzeko behar diren piezen konponketa eta ordezkapen guztiak, barne hartuta konponketa edo ordezkapen horietan baliatutako eskulana.

Gainerako gastu guztiak berariaz barne egongo dira, hala nola desplazamendu denborak, garraioak, ibilgailu eta tresnen amortizazioa, ordezkatu beharreko piezak, beste bitarteko batzuen erabilgarritasuna eta ekipamenduen edo horien elementuren baten jasotze eta itzulera kostuak (fabrikatzailearen lantegietan konponketak egin beharko balira), etab.

Kontratistak ez badu akatsa zuzentzen jarraian adierazitako epe barruan, erakunde kontratatzaileek elementu akastunak ordezkatu ahalko dituzte, hirugarren baten bidez, horren ondoriozko kostu eta gastu guztiak kontratistarengandik jasotzeko eskubidea izanda.

Klausula honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango akatsa erakunde kontratatzaileei edo beren langileei egoztekoa den eta kontratistak emandako jarraibideak urratzen dituen erabilera edo jarduketa baten emaitza bada. Kasu horietan, erakunde kontratatzaileen kontura izango dira akatsak.

Kontratuak ez ditu barne izango klausula honen arabera kontratistak bere kontura egin behar ez dituen konponketak eta ordezkapenak.

Klausula honetan adierazitako jarduketak gauzatzeko kontratistaren erantzun denbora 2 ordukoa izango da gehienez, DONOSTIA KULTURAK dagokion eskaera egiten dionetik.

2. 50 metrotik gorako distantzia badago materiala garraiatzen duen kamioi/furgonetaren kokalekutik muntaketa tokiraino.
3. Muntaketa espazioan langileen mugikortasuna oztopatzen duten baldintzak badaude, lurzoruaren ezaugarriak direla eta (adib. hondartzak, hareatzak, urbanizatu gabeko espazioak, etab.).

IFK-CIF Q2000541I

Ondore horietarako, erantzun denbora gisa ulertuko da erakunde kontratatzaileek dagokien errekerimendua egiten dutenetik kontratistak elementu akastuna konpondu edo, egokia bada, ordezkatzen duen arte igarotako denbora.

Erakunde kontratatzaileen errekerimendua posta elektronikoz egingo da.

b) Mantentze prebentiboa

Enpresa kontratistak muntaketen amaierako egiaztapena egingo du, ekitaldia hasi baino 2 ordu lehenago, kasu hauetan:

- Danborrada (Konstituzio plazako eszenatokia),
- Aste Nagusia (txistularien alardearen eszenatokia),
- Su artifizialak (babes hesiak)
- Estropadak (harmailak eta epaimahaien egiturak)
- Jazzaldia (eszenatokiak: Trinitate plaza, Kursaaleko Zurriola terraza, Kursaaleko Urumea terraza eta Chillida Leku).
- Horien antzeko muntaketa mailarekin egin litezkeen beste batzuk.

Horrez gain, enpresa kontratistak jarraian adierazitako berrikusketak egin beharko ditu, gutxienez, materiala bide publikoan instalatuta dagoen bitartean, **epe hori 4 egunetik gorakoa bada:**

- 1 bisita, 5 egunetik 8 egunera arteko epe baterako ipinitako instalazioak berrikusteko.

- 2 bisita, 8 egunetik gorako epe baterako ipinitako instalazioak berrikusteko.

IFK-CIF Q2000541I

8. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Adjudikaziodunak lote bakoitzaren Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 12. klausulan adierazitako giza baliabideak atxiki beharko ditu gutxienez kontratua egikaritzeko.

- Koordinatzailearen eginkizunak:

1. Kontratuaren objektua den zerbitzua egikaritzeaz arduratzea.
2. Kontratuak behar dituen baliabideak esleitzea, jarduera aurreikusitakoaren arabera garatzeko.
3. Erakunde kontratatzaileko arduradunarekin lankidetzan aritzea, materialaren erabilera eta mantentze zuzenak ziurtatzeko.
4. Adjudikaziodunaren ordezkari gisa jardutea DONOSTIA KULTURAREN aurrean.
5. Kontratuarekin lotutako antzeko eginkizun guztiak.

- Muntaketa arduradunaren eginkizunak:

1. Kontratuaren objektua den zerbitzua egikaritzeaz arduratzea.
2. Jarduera aurreikusitakoaren arabera garatzeko behar diren langile eta materialak antolatzea.
3. Erakunde kontratatzaileekin lankidetzan aritzea, materialaren erabilera eta mantentze zuzenak ziurtatzeko.
4. Kasuko jardueraren ezaugarriak ezagutzea.
5. Muntaketa eta desmuntaketa arauak ezagutzea, eta errespetatzen direla ziurtatzea.
6. Jardueraren muntaketaz arduratzea, horren barne direla muntaketaren koordinazio eta gainbegiraketa. Behar gehigarririk agertzen bada, kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

7. Jarduera hasi aurretik, altzari eta materialen egoera eta funtzionalitatea gainbegiratzea.
8. Muntaketa hasteko ordua errespetatzea.
9. Zerbitzuarekin lotura duten eta esleitzen zaizkion antzeko eginkizun guztiak.

Donostian, sinadura elektronikoan adierazitako egunean.

Jon Insausti Maisterrena
Kontratazio-organoa

IFK-CIF Q2000541I

I. ERANSKINA - ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

I. Eranskin honetan jaso dira kontratuaren objektua osatzen duten elementuen gutxieneko ezaugarriak. Argitu behar da, zenbait ezaugarriren kasuan, "gutxi gorabeherako" edo antzeko terminoak erabiltzen direla neurriak, pisuak eta abar aipatzean. Kasu horietan, lizitatzaileak ulertu behar du aipatu balioekiko aldea % 10ekoa izan ahalko dela gehienez.

Oro har, muntaketa bakoitzean, baldintza egokietan egongo dira elementu guztiak, estetikaren, garbiketaren, egokitasunaren eta segurtasunaren aldetik.

Ez da onartuko enpresa adjudikaziodunaren/adjudikaziodunen edo beste batzuen publizitaterik.

Lizitazio honen objektua osatzen duten elementuak:

1. LOTEA

1. **Eszenatokietarako eta eszenatoki osagarrietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin:**

   Plataformak modularrak izango dira (neurriak: 2x2 m, 2x1,33 m, 2x0,66 m edo antzekoak), oinplanoko neurri eta forma guztietara egokitzeko modukoak, modulazioaren arabera.

   Lizitatzaileak berariaz bermatu beharko du erresistentzia, edozein motatako ikuskizun dinamiko (dantzak, etab.) zein estatikoak egiteko.

   Plataformaren zorua suaren kontrako panel fenoliko irristagaitz eta hidrofugoarekin egina izango da. Dantza ikuskizun eta antzekoetarako. Panelak erabilera eta garbiketa baldintza ezin hobeetan egongo dira, hausturarik gabe eta egiturara ainguratuta, mugimenduak saihesteko. Panel fenolikoak banaka kentzeko modukoak izango dira, egiturari dagokion zatia desmuntatu beharrik gabe.

   m^2 bakoitzeko erresistentzia 750 kg-koa edo handiagoa izango da, banaketa homogeneoarekin, eta segurtasun koefizientea 1,5ekoa gutxienez (alderdi hauek materialen enpresa eraikitzaileak ziurtatu beharko ditu).

   Egitura altzairu galvanizatukoak izango dira eta lurzoruko aldaketa edo desnibeletara zein lurzoruko edozein ezaugarrira (lurzoru natural edo zolatuak) moldatzeko moduko euskarri teleskopikoak izango dituzte. Horrez gain, inpaktuzko ekintza dinamikoak (pertsonen mugimendua, haizea, etab.) jasateko behar diren txarrantxatzea eta diagonalizazioa izango dituzte.

   Plataforma 0,60 eta 2,50 m arteko edozein altuerara egokitu ahalko dira.

   Elementu hauek izango dituzte: sarrerako eskailerak (gutxienez bi, beharrezkoak badira), arrapala "helmugarekin" / gabe eta babes barandak (beharrezkoak badira). Eszenatokira iristeko eskailerek ate bidezko itxitura edo antzekoa izan beharko dute, baimenik gabeko pertsonak eszenatokietara sartzea ekiditeko, muntatuta dauden bitartean. Halaber, seinalizazio islatzailea izango dute zoruan. Plataforma horiek xafla malkodunekin egindako loturak izango dituzte.

2. **Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x1 m-koak, unitatetan.**

   Tarima modular tolesgarriak/hanka finkokoak, 2x1 m-koak, aluminioz eginak (markoa), altzairuzko hankekin (tolesgarriak), altzairu edo aluminiozko hankekin (finkoak) eta suaren kontrako panel irristagaitz eta hidrofugoarekin.

IFK-CIF Q2000541I

Altuera erregulatzeko sistema, lurzorutik 20, 40, 60, 80 eta 100 cm-ra.

m^2 bakoitzeko erresistentzia 500 kg-koa edo handiagoa izango da, banaketa homogeneoarekin, eta segurtasun koefizientea 1,5ekoa gutxienez (alderdi hauek materialen enpresa eraikitzaileak ziurtatu beharko ditu).

Sarrerako eskailerak (gutxienez 2 beharrezkoak badira) eta zoruko seinalizazio islatzailea izango dituzte.

Tarimaren alde bakoitza modu independentean erregulatu ahal izatea aintzat hartuko da, hartara arrapala edo gainazal inklinatuak sortuta, antolatzaileen beharren arabera.

3. Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x0,50 m-koak, unitatetan.

Tarima modular tolesgarriak/hanka finkokoak, 2x0,50 m-koak, aluminioz eginak (markoa), altzairuzko hankekin (tolesgarriak), altzairu edo aluminiozko hankekin (finkoak) eta suaren kontrako panel irristagaitz eta hidrofugoarekin.

Altuera erregulatzeko sistema, lurzorutik 20, 40, 60, 80 eta 100 cm-ra.

m^2 bakoitzeko erresistentzia 500 kg-koa edo handiagoa izango da, banaketa homogeneoarekin, eta segurtasun koefizientea 1,5ekoa gutxienez (alderdi hauek materialen enpresa eraikitzaileak ziurtatu beharko ditu).

Sarrerako eskailerak (gutxienez 2 beharrezkoak badira) eta zoruko seinalizazio islatzailea izango dituzte.

Tarimaren alde bakoitza modu independentean erregulatu ahal izatea aintzat hartuko da, hartara arrapala edo gainazal inklinatuak sortuta, antolatzaileen beharren arabera.

4. Eszenatokietarako estaldurak:

Enpresa adjudikaziodunak 15 eszenatokirako estaldurak izango ditu gutxienez biltegian momentu oro. Hauek dira eszenatoki horien gutxi gorabeherako neurriak:

- 6 x 6 m edo antzeko 2 eszenatokirako estaldurak
- 8 x 6 m edo antzeko 4 eszenatokirako estaldurak
- 10 x 6 m edo antzeko 6 eszenatokirako estaldurak
- 12 x 8 m edo antzeko 3 eszenatokirako estaldurak

Ezaugarriak:

- Lurretik eszenatokirako altuera, atzealdean: gutxienez 3,5 metro (6x6, 8x6, 10x6 edo antzekoa) eta 5 metro (12x8 edo antzekoa).
- Eszenatokiaren gaineko aldea suaren kontrako PVC olana hidrofugoarekin estaliko da (M2 kalitatekoa gutxienez).
- Haizearekiko erresistentzia: 90 km/ordu gutxienez.
- Kargak: Estalkiak, egitura beraren pisuaz gain, beste 2500 kg jasateko gaitasuna izango du gutxienez. 2 tonako PA esekitzeko moduko sistema bat izango du. Fabrikatzailearen eta/edo kabinete tekniko baimenduaren ziurtagiri egokiak aurkeztu beharko dira, estalkiaren egiturak jasan ditzakeen kargen adierazpenarekin. Kargen banaketarako eskema ere aurkeztuko da, argi eta/edo soinu esekien kasuan.

IFK-CIF Q2000541I

- Ezingo dira barruko zein kanpoko hodi edo kableak ikusi, ezta aldamenetakoak edo atzealdekoak ere; beraz, kableak behar bezala estalita gelditu beharko dira, "oihalak" atalean adierazitako materialekin.
- Punturik altuenetik atzealderaino, ur poltsak saihesteko moduko inklinazio nahikoa izango du.
- Itxitura estankoa eszenatokiko egitura gainean, euria egitekotan ura sartzea ekiditeko.

5. Harmailak, eserlekutan.

6. Harmaila goratuak, eserlekutan.

Ezaugarriak:

- Egitura solidoa.
- Egitura metaliko teleskopikoa edo antzekoa.
- Espazio bakoitzaren beharretara egokitzeko moduko neurriak.
- Pasillo irristagaitzak.
- Aire zabalean erabiltzeko moduko materialarekin egindako eserlekuak.
- Sarrerako eskailera mailak pasilloetako material berean.
- Barandak aurrealdean, atzealdean edo aldamenetan, kasuaren arabera.
- Instalatzen den egituraren % 10 (guztizko neurria edozein izanda ere) mugikortasun urriko pertsonen erabilerarako gaituta egongo da.

7. Eszenatokien atzealdeko eta aldamenetako itxiturak:

Ezaugarriak:

- Materiala: M2 kalitateko suaren kontrako olana mikroperforatua.
- Kolorea: beltza.
- Itxiturak eszenatokira sartzeko tokietatik (eskailerak eta arrapala) ireki ahalko dira.
- Ura eszenatokira sartzea ekidingo dute (bereziki latzak diren egoera klimatologikoetan salbu).
- Erraz ireki eta itxiko dira, eta eszenatokiko zutabeetan erraz bildu ahalko dira, erraz aplikatzen den sistema baten bidez, laguntza tekniko espezializaturik gabe.
- Neurriak bat etorriko dira instalatuko diren eszenatokiko estalkiak behar dituen neurriekin.
- Eszenatokian instalatzeko erabiliko diren krokadurek kamera beltzeko espazio bat ezartzeko aukera emango dute.
- Instalazioa egitean, bela efektua eta/edo eusteko krokaduren haustura saihesteko neurriak hartuko dira, 90 km/ordu edo hortik beherako haizeen kasuan.
- Erabilera eta garbiketa baldintza ezin hobeetan mantenduko dira.

8. Zango babesak

IFK-CIF Q2000541I

Ezaugarriak:

- Materiala: M2 kalitateko suaren kontrakoa.
- Kolorea: beltza.
- Eszenatokia instalatzen den espazioko zoruaren eta eszenatokiko zoruaren arteko altuera estali beharko dute.

9. Babes barandak (babes listoiak) (eszenatoki, podium eta abarretarako):

Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu galvanizatua, aluminio anodizatua,…
- Altuera: 110 mm.
- Modularrak.
- Kultur jardueretarako estetika egokia izango dute ("obra" moduko estetika saihestuz) eta erabilera eta garbiketa baldintza ezin hobeetan egongo dira.
- Modu finkoan eutsiko dira eszenatokiaren egiturara, edozein arrazoirengatik mugi daitezen ekiditeko.

10. Ibilgarri estaliak, 2x2 m tamainakoak, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin:

Ezaugarriak:

- Zorua: lote honen 1. erreferentzian eszenatokietarako definitutako plataformen ezaugarri berak.
- Atzeko eta aldamenetako itxiturak: lote honen 7. erreferentzian definitutako eszenatokietako atzealdeko eta aldamenetako itxituren ezaugarri berak.

11. Ibilgarri estaliak, 4x2 m tamainakoak eta 4,5 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin:

Ezaugarriak:

- Zorua: lote honen 1. erreferentzian eszenatokietarako definitutako plataformen ezaugarri berak.
- Atzeko eta aldamenetako itxiturak: lote honen 7. erreferentzian definitutako eszenatokietako atzealdeko eta aldamenetako itxituren ezaugarri berak.
- Sartzeko barne-eskailerarekin

12. Ibilgarri estaliak, 2x1,33 m tamainakoak eta 2,35 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin:

Ezaugarriak:

- Zorua: lote honen 1. erreferentzian eszenatokietarako definitutako plataformen ezaugarri berak.
- Atzeko eta aldamenetako itxiturak: lote honen 7. erreferentzian definitutako eszenatokietako atzealdeko eta aldamenetako itxituren ezaugarri berak.

13. Eszenatokirako eskailerak (3.etik aurrera):

IFK-CIF Q2000541I

Ezaugarriak:

- Eskailera maila modularrak, 30 x 100 cm inguruko mailagainarekin (eskailera mailen arteko altuera: 20 cm). Eskailerak eskatzen den eszenatokiaren altuerara moldatuko dira, eta eskailera maila kopuru egokia izan beharko dute, eszenatokia instalatzen den espaziotik eszenatokiaren plataformaraino.
- Materiala: 22 mm lodiera duen panel fenolikoa, gainazal irristagaitzarekin, suaren kontrakoa eta hidrofugoa (suarekiko eta urarekiko erresistentea) edo antzekoa.
- Eskailera eta eszenatokia lotzeko konexio sistema egokia, pertsonak eszenatokira igo edo bertatik jaisten direnean mugimenduak saihesteko.
- Barra bertikalez osatutako baranda, luzera osoan zehar.
- 500 kg/m^2-ko gutxieneko gainkarga.
- Ate bidezko sarrerako itxitura edo antzekoa.
- Eszenatokira iristeko eskailerek ate bidezko itxitura edo antzekoa izan beharko dute, baimenik gabeko pertsonak eszenatokietara sartzea ekiditeko, muntatuta dauden bitartean. Halaber, seinalizazio islatzailea izango dute zoruan.

14. Eszenatokira iristeko arrapala:

Ezaugarriak:

- 2 m-ko zabalera luzera osoan zehar.
- Materiala: 22 mm lodiera duen panel fenolikoa, gainazal irristagaitzarekin, suaren kontrakoa eta hidrofugoa (suarekiko eta urarekiko erresistentea).
- Eszenatokira sartzeko konexio sistemarekin (adibidez, xafla malkoduna), pertsonak, materialak edo bestelako elementuak igotzean/jaistean mugitu dadin ekiditeko.
- Barra bertikalez osatutako baranda, luzera osoan zehar.
- 700 kg/m^2-ko gutxieneko gainkarga.
- Ate bidezko sarrerako itxitura edo antzekoa.
- Seinalizazio islatzailea zoruan.
- Eszenatokira iristeko arrapalek ate bidezko itxitura edo antzekoa izan beharko dute, baimenik gabeko pertsonak eszenatokietara sartzea ekiditeko, muntatuta dauden bitartean. Halaber, seinalizazio islatzailea izango dute zoruan.

Eszenatokira iristeko arrapalen inklinazioari dagokionez, gurpildun aulkian doazen edo mugikortasun urria duten pertsonen sarbide autonomo eta independentea ahalbidetuko du; beraz, inklinazioa % 8 eta % 10 artekoa izango da. % 8koa da sarbide autonomoa eta independentea bermatzeko inklinazio egokiena, batez ere goiko gorputz adarretan indar gutxi duten pertsonentzat.

15 eta 16. Moketa, babes plastikoarekin edo gabe:

Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu leuna, gutxienez ere 290 g/m^2-koa, babes plastiko itsasgarriarekin edo gabe.

IFK-CIF Q2000541I

- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: askotarikoak.
- Moketa babes plastikoarekin: erraz kendu daitekeen plastiko itsasgarri bidezko estaldura.

17. Linoleoa, eszenatokiko plataforma eta beste batzuk estaltzeko, m^2-tan:

Ezaugarriak:

- Dantza linoleoa, agiri honetan eskatzen diren gutxieneko eszenatoki estalien zorua estaltzeko.
- Kanpoaldeko eszenatokietan musika eta dantza emanaldietarako homologatua eta ziurtatua.
- Suaren kontrakoa eta hidrofugoa.
- Gainazal ez islatzailea eta irristagaitza.
- Lodiera: 1,7 mm g.g.b.
- Kolorea: beltza.

18/19/20/21. 100, 350, 600 eta 900 kg inguruko kontrapisuak, zutoinak, truss-ak, dagokien estaldurarekin:

Ezaugarriak:

- Material solidoez eginak izango dira.
- Erraz pilatu eta ahokatuko dira (kontrapisuen arteko ahokadura sistemak horien mugimendu horizontala galaraziko du).
- Pisu konbinazio desberdinekin muntatzeko modukoak izango dira, kasu bakoitzeko muntaketa beharren arabera.
- Elementu hauen egitura egokia izango da instalatu litezkeen karpetako zutabeekin akoplatzeko, zutabeen egiturari eutsiz eta 100 km/ordura arteko haizeekin altxatzea galaraziz (materialen enpresa eraikitzailearen adierazpen teknikoen arabera).

IFK-CIF Q2000541I

2. LOTEA

1. Metalezko hesiak, 1 m-ko altuera eta 2,20 m-ko luzerarekin, unitatetan.

- **Metalikoak**, 1 m-ko altuerarekin eta 2’20 m-ko luzerarekin, gutxi gorabehera: burdin biribilduz eginak eta altzairu galvanizatuko akaberarekin. Lau hanka, 11 barrotez hornituak gutxienez, eta ar/eme aldamenetako ainguraketekin, hesiak elkarri lotzeko. Abisuak edo publizitatea ipintzeko plaka zentrala, trafiko araudiaren araberako neurri normalizatuak dituena. Materiala mardula, oso sendoa eta tortsioarekiko erresistentea izango da.

2/3. Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin eta horiek gabe, ml-tan.

- **Hesi metaliko zurrunaren modelo desmuntagarria,** 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m-ko zabalerarekin gutxi gorabehera, hormigoizko oinarekin: aldamenetako tutu motako markoak, Ø40 mm-koak, biribilduak eta akabera galvanizatuarekin. Sareta elektrosoldatuz hornitua, eta hesiak elkarri lotzeko sistema egokiarekin. Materiala mardula, oso sendoa eta tortsioarekiko erresistentea izango da.

4/5. Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin eta horiek gabe, ml-tan.

- **Hesi metalikoaren modelo desmuntagarria,** 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m-ko zabalerarekin gutxi gorabehera: Ø40x1.5 mm-ko tutu motako markoa, goiko aldean biribildua, hanka kurbatua eta sareta elektrosoldatuz hornitua. Ar/eme ainguraketak aldamenetan, hesiak elkarri lotzeko. Altzairu galvanizatuko akabera. Materiala mardula, oso sendoa eta tortsioarekiko erresistentea izango da.

6/7/8. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin, esparru erreserbatuaren hasieran eta amaieran, beharrezkoa balitz, laurogeita hamar graduko 2 hesirekin. Luzeraren arabera (75 m-ra arte, 150 m-ra arte eta 300 m-ra arte) eta aldi bereko esparru kopuruaren arabera.

- Aparkatzeko barruti edo esparru erreserbatuak egitea, 1 m x 2,2 m-ko hesiak muntatuz/desmuntatuz, dagokien trafiko seinale normalizatuarekin eta balizatzeko zinta bidez elkarri lotuta.

9. PVC/altzairu galvanizatuko hesiak, 1,05 m-ko altuera eta 1 m-ko luzerarekin, gutxi gorabehera. UV izpiekiko erresistentea den polipropilenoz eginak, oin birakariekin eta kolore urdinekoak. Aldamenetako ainguraketak hesiak elkarri lotzeko.

10. Jende oldeen aurkako hesia, atedun moduluekin eta kableak igarotzeko moduluekin; 1,37 m inguruko oinarri eta 1,29 m inguruko altuerarekin.

11. Banderatxoak ipintzeko euskarriak, jardueraren arabera.

- Kale argietan banderatxoak ipintzeko euskarriak, 500 eta 900 mm arteko esekidurarekin, kale argitik hasita.
- Materiala: metala, PVC, beira zuntza edo antzekoa. Aintzat hartuko da bereziki sistema birziklagarriak erabiltzea.
- Materiala zirkunferentzia neurri desberdinekin erabiltzeko modukoa izango da.
- Banderatxoei eusteko sistema egokia izango da, bela efektua saihesteko.
- Kale argiak kaltetzea ekiditeko elementuak izango ditu euste sistemak.

12. 5, 2,5, 2 eta 1 m-ko altuerako mastak, dagokien euskarri edo oinekin eta banderak ipintzeko zirgiloekin (beharrezkoa balitz).

Ezaugarriak:

- Materiala: zura, metala, beira zuntza edo beste material zurrun bat.
- Muntaketa anitzetarako aukera emango dute, instalazioa egingo den tokiko beharren arabera (lurrean, harean, lurrari eusteko aukerarik gabe, beste elementu batzuetara eutsita, etab.), euskarrietako muntaketa barne.

IFK-CIF Q2000541I

- Bandera goratzeko soka instalatzeko aukera eman beharko dute.
- Erabilera egoera ezin hobean mantenduko dira, markarik, marradurarik eta antzekorik gabe.

13. Kableak estaltzekoak:

Ezaugarriak:

- Materiala: dentsitate handiko poliuretanoa.
- Aire zabalerako egokia.
- Mihiztadura sistema modularra.
- Gainazal irristagaitza.
- Kargak: tonaje handiko ibilgailuen igarotzea jasango du.
- Suarekiko erresistentea.

14. Balizatzeko zinta (250 m-ko luzera):

- Materiala: polietilenoa edo antzekoa.
- Kolorea: gorri / zuria.
- Zabalera: 80 mm.

15. Errafia beltza hesiak estaltzeko:

- Materiala: dentsitate handiko polietilenoa edo antzekoa.
- Kolorea: beltza. Beste kolore batzuk onartu ahalko dira, betiere estetikak errafia erabiliko den espazioaren estetika apurtzen ez badu.

IFK-CIF Q2000541I

3. LOTEA

KARPAK:

Karpa modularrak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak:

Eskatutako karpak behar bezalako kontrapisuekin muntatuko dira, lurrera ainguratu gabe eta altxatzea galarazteko moduan, haizearekiko erresistentziaren arabera. Euste sistema babestuta egongo da, publiko erabiltzailearen eta bestelakoen istripuak saihesteko.

Karpari eusteko erabiltzen diren kontrapisuek **estaldura zuria** izango dute, karpetako gortinen material berekoa.

1/2/3. Karpa modularrak, 10, 15 eta 20 m-ko portikoarekin, bi isuriko 5x4 m-ko karpak. Jaima motako 5x5 m-ko karpak:

Ezaugarriak:

- Sabaia eta alboak estaltzeko olanak, 1.100 Dtex.-eko poliester aurreatezatuarekin eginak eta erresistentzia handiko PVC indukzioarekin.

- Olanen suarekiko erreakzio ziurtatua: M-2.
- Izpi ultramore, lizun, gazitasun eta abarren aurkako tratamendua duten olanak.
- Olana iragazgaitzak.
- Olana zuriak, erabilera eta garbiketa egoera ezin hobean. Ez dira onartuko olana ilunduak edo margo, graffiti eta abarren hondarrak dituztenak.
- Muntaketa modularrerako aukera, banakakoa eta multzokatua (dagozkion loturekin).
- Gutxieneko altuera aldamenean: 3 m (10, 15 eta 20 m-ko portikoen kasuan), 2,40 m (5x5 m-ko karpetan) eta 2,20 m (5x4 m-karpetan), hurrenez hurren. Aintzat hartuko da aldamenetan altuera handiagoak izateko aukera.
- Zutabeak eta mihiztadurarako gainerako elementuak aluminio anodizatuz eginak izango dira.
- Haizearekiko erresistentzia: 100 km/ordura arte. (Alderdi hori materialen enpresa eraikitzaileak ziurtatu beharko du).
- Karpek larrialdietarako irteera kartel normalizatuak izango dituzte, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

IFK-CIF Q2000541I

4. Jaima motako 3x3 m-ko karpak:

Ezaugarriak:

- Sabaia eta alboak estaltzeko olanak, 1.100 Dtex.-eko poliester aurreatezatuarekin eginak eta erresistentzia handiko PVC indukzioarekin.
- Olanen suarekiko erreakzio ziurtatua: M-2.
- Izpi ultramore, lizun, gazitasun eta abarren aurkako tratamendua duten olanak.
- Olana iragazgaitzak.
- Olana zuriak.
- Muntaketa modularrerako aukera, banakakoa eta multzokatua.
- Zutabeak eta mihiztadurarako gainerako elementuak aluminio anodizatuz eginak izango dira.
- Haizearekiko erresistentzia: 100 km/ordura arte. (Alderdi hori materialen enpresa eraikitzaileak ziurtatu beharko du).

5. 3x3 m-ko karpa tolesgarriak:

Ezaugarriak:

- Eskatutako karpek lurrera ainguratu gabeko euste sistema bat izan beharko dute, eta sistema hori karpa altxatzea galarazteko modukoa izango da, egoera meteorologiko arruntetan.

- Goiko estaldura olanak eta aldamenetako zein atzealdeko gortinak izango dituzte, hala eskatzen bada.
- Zuriak edo beltzak.

6. 3x4,5 m-ko karpa tolesgarriak.

- Eskatutako karpek lurrera ainguratu gabeko euste sistema bat izan beharko dute, eta sistema hori karpa altxatzea galarazteko modukoa izango da, egoera meteorologiko arruntetan.
- Goiko estaldura olanak eta aldamenetako zein atzealdeko gortinak izango dituzte, hala eskatzen bada.
- Zuriak edo beltzak.

7. 3x6 m-ko karpa tolesgarriak, mastertent motakoak.

- Eskatutako karpek lurrera ainguratu gabeko euste sistema bat izan beharko dute, eta sistema hori karpa altxatzea galarazteko modukoa izango da, egoera meteorologiko arruntetan.
- Goiko estaldura olanak eta aldamenetako zein atzealdeko gortinak izango dituzte, hala eskatzen bada.
- Zuriak edo beltzak.

8. Karpetarako zorua:

Ezaugarriak:

- Tronadura flotatzailea, gutxienez ere 21 mm-ko lodiera duten oholez egina, mihiztadurarako plaka metalikoekin eta metalezko bastidore baten gainean muntatua, isolamendu termikoa eta euri urekiko isolamendua ziurtatzeko.
- Mantentzea: erabiltzeko baldintza ezin hobeetan egongo da materiala, bai segurtasunaren zein estetikaren aldetik, eta ez dira onartuko histurak, berniz faltak, etab.
- Desgaitasuna duten pertsonak instalazio tokira erraz iristeko moduko muntaketa izango du.
- Tronadurak gutxienez ere 500 kg/m^2-ko erresistentzia duela ziurtatu beharko da.

9 eta 10. Karpetarako moketa, babes plastikoarekin edo gabe:

Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu leuna, gutxienez ere 290 g/m^2-koa, babes plastiko itsasgarriarekin edo gabe.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: askotarikoak.
- Moketa babes plastikoarekin: erraz kendu daitekeen plastiko itsasgarri bidezko estaldura.

IFK-CIF Q2000541I

11/12/13/14. 100, 350, 600 eta 900 kg inguruko kontrapisuak, karpetarako, dagokien estaldurarekin:

Ezaugarriak:

- Material solidoez eginak izango dira.
- Erraz pilatu eta ahokatuko dira (kontrapisuen arteko ahokadura sistemak horien mugimendu horizontala galaraziko du).
- Pisu konbinazio desberdinekin muntatzeko modukoak izango dira, kasu bakoitzeko muntaketa beharren arabera.
- Elementu hauen egitura egokia izango da instalatu litezkeen karpetako zutabeekin akoplatzeko, zutabeen egiturari eutsiz eta 100 km/ordura arteko haizeekin altxatzea galaraziz (materialen enpresa eraikitzailearen adierazpen teknikoen arabera).

15. Banaketak sortzeko manparak:

Banaketak sortzeko manparak, 120x200 cm ingurukoak:

Materiala: zura, melanina, kortxo tapizatua edo antzekoa.

Kolorea: zuria, artile kolorekoa edo grisa.

Muntaketa modularrerako aukera, banakakoa eta multzokatua.

Beste batzuk: eusteko oinak.

Barrualdean/kanpoaldean banaketak sortzeko manparak, 200x200 cm ingurukoak:

Materiala: zura, melanina, kortxo tapizatua edo antzekoa.

Kolorea: zuria, artile kolorekoa edo grisa.

Beste batzuk: eusteko oinak.

16. Gurpildun esekilekuak eta dagozkien pertxak (25 esekileku bakoitzeko):

Gurpildun esekilekua, erabiltzeko eroso eta erraza.

Materiala: altzairu kromatua, aluminioa edo antzekoa.

17. Ispiludun altzariak:

Altzariaren materiala eta gutxi gorabeherako neurriak: zur melaminatua edo antzekoa, ertz babesekin.

Altuera: 76 cm. Zabalera: 98 cm. Sakonera: 30 cm.

Ispiluaren gutxi gorabeherako neurriak eta ezaugarriak: 98 x 76 cm Sakonera: 2,5 cm, (gehi bonbillak). Instalazio elektrikoarekin, argiarekin eta lehorgailu/plantxetarako entxufearekin.

Kolorea: zuria, beltza,…

IFK-CIF Q2000541I

18. **Mostradoreak, 100x50x100 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin:**

    Materiala: metala, melamina, zura edo antzekoa.

19. **Mostradoreak, 190x45x110 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin:**

    Materiala: metala, melamina, zura edo antzekoa.

20. **Egur zuriz egindako txarteldegi eramangarria, 1 m x 1,20 m inguruko neurri eta 2,10 m inguruko altuerarekin, atzealdeko atearekin.**

21. **Atedun armairuak, 100x45 cm inguruko neurri eta 158 cm inguruko altuerarekin, apalekin eta giltzaz ixtekoak.**

22. **Zuzentze zutoinak zinta barneragarriarekin:**

    Materiala: altzairu herdoilgaitz edo kromatua edo antzekoa.

    Altuera: 95 cm.

    Oinarri zirkularra zorurako babesarekin.

    Zinta barneragarri beltza, neurri hauekin: 1,80-2 m.

23. **100 litroko kubo beltzak, heldulekuekin eta hondakinak biltzeko dagokien poltsarekin:**

    Plastikozko kubo beltzak, heldulekuekin, askotariko erabileretarako egokiak, hondakinak biltzeko dagokien poltsarekin.

IFK-CIF Q2000541I

II. ERANSKINA

2025 URTEKO JAIETAKO JARDUEREN EGUTEGI ORIENTAGARRIA

DONOSTIA - FESTAK

JAI OFIZIALAK: DATAK

URTARRILA

ERREGE KABALGATA
Urtarrilak 5

SAN SEBASTIAN EGUNA
Urtarrilak 20

OTSAILA

KALDEREROAK
Otsailak 8

IÑUDE ETA ARTZAIAK
Otsailak 9

INAUTERIAK
Otsailak 27 / Martxoak 4 - Erdigunean eta auzoetan zehar
Martxoak 8– Loiolako Erriberak
Martxoak 9– Altza Piñata
Martxoak 15 - Bidebieta

MARTXOA

DFERIA
Martxoak 13-20 (2025)

EKAINA

SAN JUAN BEZPERA
Ekainak 23

UZTAILA

DONOSTIAKO JAZZALDIA
Uztailak 23-27 (2025)

ABUZTUA – AGOSTO

ASTE NAGUSIA
Abuztuak 9 - 16

SU ARTIFIZIALEN 60. NAZIOARTEKO LEHIAKETA
Abuztuak 9 - 16

IFK-CIF Q2000541I

ABUZTUAREN 31KO OROIMENEZKO EKITALDIAK
Abuztuak 31

IRAILA

DONOSTIAKO ESTROPADAK
Sailkapen estropada:
Irailak 3 eta 4

DONOSTIAKO ESTROPADAK
Irailak 7 eta 14

EUSKAL JAIAK
Irailak 3-14

ABENDUA

SAN TOMAS FERIA
Abenduak 21

OLENTZERO eta MARI DOMINGI
Abenduak 24

IFK-CIF Q2000541I

AUZOETAKO JAIAK

JAIEN IZENA	JAIEN DATA 2025
ANTIGUAKO SAN SEBASTIAN JAIAK	URTARRILA
IBAETAKO JAIAK (AINGERU ZAINDARI)	MARTXOA
BIDEBIETAKO TXANPONTXO JAIAK	MAIATZA
MORLANSEKO JAIAK	MAIATZA
LARRATXOKO JAIAK	EKAINA
AMARA BERRIKO JAIAK	EKAINA
ANTIGUAKO SAN JUANAK	EKAINA
BUENAVISTA AUZO ELKARTEA	EKAINA
HERRERAKO JAIAK	EKAINA
SAN JUAN JAIA INTXAURRONDON	EKAINA
OLETAKO JAIAK	EKAINA
INTXAURRONDOKO INTXAUR JAIAK	EKAINA
IGELDOKO SAN PEDRO JAIAK	EKAINA
ALTZAKO SAN MARTZIAL JAIAK	EKAINA
AÑORGAKO FESTAK	UZTAILA
KAIKO KARMENGO JAIAK	UZTAILA
GROSEKO ZIPOTZ JAIAK	UZTAILA
AMARA BERRIKO KARMENGO JAIAK	UZTAILA

ZUBIETAKO HERRI JAIAK	UZTAILA
AMARAKO JAIAK	UZTAILA
LOIOLAKO SAN INAZIO JAIAK	UZTAILA
AÑORGA TXIKIKO JAIAK	IRAILA
FIESTAS DE TXOMIN ENEA	IRAILA
AIETEKO JAIAK	IRAILA
INTXAURRONDO ZAHARREKO JAIAK	IRAILA
EGIAKO PORRONTXO JAIAK	IRAILA
JOLASTOKIETAKO JAIAK	IRAILA
FIESTAS DE SAN FESTO EN RIBERAS DE LOIOLA	IRAILA
ARRIAGA SERAFINES (ALTZA)	IRAILA
AMARA BERRIKO SUPERXAGU JAI HERRIKOIAK	URRIA
MARTU JAIAK	URRIA

BESTE BATZUK

ERREGIO ETXEEN EGUNA

Maiatzaren azken asteburua

IFK-CIF Q2000541I

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Jon Insausti Maisterrena (06/05/2025 08:04 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 6ZIC-3BE2-8Z32-Q01J